



### Jarraibideak

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu. ORDUBETE ETA HOGEITA HAMAR MINUTU daukazu azterketa egiteko.

### PROPOSAMENAK

#### A AUKERA

##### PROBA PRAKTIKOA

Diseinatu zuk sorturiko logotipo bat, lotura geometrikoen aplikazioan oinarrituz.


**TEKNIKA ETA MATERIALAK:** Ikasleak nahi dituenak, ezarritako ariketaren eta denboraren arabera.

##### PROBA TEORIKOA

Garatu, idatziz: zein da bere aplikazioa? Justifikatu diseinuaren egokitzapena eginkizunari. Esan zein testuingurutan dagoen oinarrituta proba praktikoa, eta definitu kontzeptuak zehatz eta argi; beharrezkoa iruditzen bazaizu, egin eskemak eta marrazkiak eskuz, iruzkinak gaineratuaz.

#### B AUKERA

##### PROBA PRAKTIKOA



Marratu aurkezturiko gorputz geometrikoaren garapena, berau osatzen duten poligono erregularren alde bakoitza 16 cm-koa delarik. Kontuan hartu piramide honek "DOLS" markako bonboiak bilduko dituela eta eslogana *zaporea* dela. Egin piramidearen diseinu grafikoa, egoki iruditzen zaizkizun aurpegietan esku hartuz.

**TEKNIKA ETA MATERIALAK:** Ikasleak nahi dituenak, ezarritako ariketaren eta denboraren arabera.

##### AZALPEN TXOSTENA

Garatu, idatziz, sormen-prozesua nolakoren azalpena, zein testuingurutan dagoen oinarrituta proba praktikoa, eta definitu kontzeptuak zehatz eta argi; beharrezkoa iruditzen bazaizu, egin eskemak eta marrazkiak eskuz.

##### EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Ondorengoak balioetsiko dira:

Proposatutako helburura ailegatzea (puntu 1). Aukeratutako teknika aplikatzeko erraztasuna eta trebetasuna (puntu 1). Aberastasun plastikoa planteamenduetan (puntu 1). Sormena eta originaltasuna (2 puntu). Lana aurkezteko eta antolatzeko modua (puntu 1) Elementuen konposizio zuzena (puntu 1). Hiztegia eta proposamenaren kideko kontzeptuak definitzea (puntu 1). Lanaren zergatiak arrazoitzea (2 puntu).